

DEBAko UDALA

2016SPLE0013  
13. BILERA: OHIKOA 2016-11-24

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** hamahirugarrena

**Eguna:** 2016/11/24

**Hasiera-ordua:** 19:30

**Amaiera-ordua:** 20:15

**Onarpen-eguna:** 2016/12/28

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

UNAI LEKUBE ARANBERRI

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA


ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

### **Bertaratzeak eta irteerak**

### **Gora-beherak**



## DEBAko UDALA

### **Aztergaiak:**

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. ( 2016/11/02).
2. Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala. “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna”.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunarekiko konpromisoa berritzeko akordio proposamena: “Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea”.
4. Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko epaitegia. 877/2009 prozedura arruntan 31/2015 E betearazpenaren berri ematea.
5. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
6. Eskariak eta galderak.

### ***Urgentziatzko deklarazioa:***


Ondoren zehazten diren gaiak ez dira bilera-deian legezko epean sartu. Halaber, Udalbatzarrak erabaki du gai hauei buruzko ebazpena gaurko bileran hartzea, urgentea dela deklaratu baitu. Gaiak urgenteak deklaratzeko erabakia aho batez hartu du, eta beraz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 47.2 artikulua adierazten duen gehiengoa gutxienez lortu da.

Hori guztia ondorengo lege eta erregelamenduen arabera egin da: apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Testu Bateratuaren 51. artikulua eta azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez onartutako Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen Erregelamenduko 113.artikulua.

### **1.- Mozioa. EH Bilduk aurkeztua. “Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera”.**

Maidar Zubikarai zinegotziak azaldu du, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aurrekontu-proposamenaren aurkezpena egiterakoan beraien alderdikideek atzeman zutela Debako Udalari Kultura arlorako ematen ohi zaion dirulaguntza zuzena ez zegoela jasota. Horren arrazoiari buruz Denis Itxasori galdetu ziotela eta erantzuna izan zela Debako alkateak esan ziola dirulaguntza hori ez emateko. Bere ustez, Udalarentzat onena da ahalik eta diru gehien lortzea, eta ondorioz, eskaera egin beharko litzateke dirulaguntza hori mantentzeko.

Alkateak erantzun du, 15.000 euroko dirulaguntza hori dela udan ikastaroak antolatzeko, eta berak, alkate bezala, ez zuela horrelakorik sekula esango. Berarentzat hitz horiek sorpresa bat izan direla eta berak eskatzekotan ez zuela 15.000 euro eskatuko 150.000 euro baizik. Marijo



## DEBAko UDALA

Telleriarekin bilera daukala eta gaiaren berri emango diola. Gogora ekarri du aurreko urtean esleitutako dirulaguntzak nola erabili ziren ikustera etorri zenean Denis Itxaso, irakasle baten hitzak izan zirela “nos habeis dado un regalo envenenado”. Azkenik esan du, mozioarekin ados dagoela, baina ez mozioaren aurrekariekin, ez baitu onartzen hor jasotakoa.

Ane Egidazu zinegotziak gaineratu du, 2015eko irailaren 8an Denis Itxasorekin egindako bileran bera ere egon zela eta horren hitzak izan zirela “datorren urtean akaso ez duzue 15.000 euroko dirulaguntza edukiko”.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, mozioaren paragrafo hori kentzeko ez dagoela arazorik.

Iñigo Cambronero zinegotzia konprometitu da dirulaguntza hori eskatzera.

Azkenik, ahobatez proposatu dute mozioaren azken puntua bozkatzea testuaren aurrekariak alde batera lagata.

### ***Erabakia.***

Mozioaren berri izanda, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez onartu du:

**Lehenengo.-** Debako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, orain arteko aurrekontuetan, Kultura arloan, Debara zuzenduta zegoen diru partida (15.000 euro) mantentzea.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### **1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/09/29)**

2016ko azaroaren 2ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla.

### **2.- Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala. “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna”.**

Marilu Albizu zinegotziak adierazpen instituzionalaren testua irakurri egin du, eta jarraian, azaroaren 25aren inguruan antolatuko diren ekintzen berri eman du eta gonbita egin du horietan parte hartzeko.

#### ***Erabakia.***

Adierazpen instituzionalaren berri izanda, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez onartu du:

**Lehenengo.-** Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala: “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” onartzea.

### **3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunarekiko konpromisoa berritzeko akordio proposamena: “Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea”.**


#### ***Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren batzordearen proposamena.***

Akordio honen xedea da, Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunarekiko konpromisoa berritzea “Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea” handitzea kidetutako administrazioen jarduera-espazioari eta kopuruari dagokionez.

Hitzarmena sinatzearen aldekoa da batzordea.

#### ***Erabakia.***

Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla:



## DEBAko UDALA

**Lehenengo.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunarekiko konpromisoa berritzeko akordioa sinatzea: “Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea”

**Bigarrena.-** Alkateari ahalmena ematea Udalbatzarraren izenean hitzarmena sinatzeko.

### **4.- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko epaitegia. 877/2009 prozedura arruntan 31/2015 E betearazpenaren berri ematea.**

Alkateak esan du, gaia larria denez, zerbitzu juridikoak aztertzen ari direla eta asmoa dela, udal talde guztiak deitzea ondorioztatzen denaren berri emateko.

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, aspaldiko gaia dela eta komenigarria dela abokatuekin bilera egitea eta baita zinegotziekin ere ondorioak aztertzeko. Gaineratu du Praileaitz hor egonda, akaso orain dela momentua gaia lantzeko .

**Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.**

### **5.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

101	2016/10/14	Medicos del Mundo-Munduko Medikuak Euskadiri diru laguntza zuzena esleitzea	
102	2016/10/15	Windbox enpresaren neurri zuzentzaileak eskatzea	2016URLA0003
103	2016/10/28	Udaltzain lanpostu bat betetzeko bitarteko funtzionario bat izendatzea 2016ko azaroaren 1erako.	
104	2016/11/02	Alonso Manufacturas Metalicas, S.L. enpresaren neurri zuzentzaileak eskatzea	2016URLA0005
105	2016/11/02	Liburutegiko langilearen kontratazioa 2016ko azaroaren 2tik 17ra.	
106	2016/11/04	Spicer Ayra Cardan S.A.-k sustatutako xehetasun azterlanaren aldaketari hasierako onarpena ematea	2016URED0001
107	2016/11/04	Astillero kaleko urbanizazioa egiteko kontratua Injelan S.L.ri esleitzea	
108	2016/11/08	Udal erroldan baja ematea	
109	2016/11/08	Udal erroldan baja ematea	
110	2016/11/08	Udal erroldan baja ematea	
111	2016/11/08	Udal erroldan baja ematea	
112	2016/11/04	Udaltzain batek aurkeztutako udaltzain bitarteko funtzionario izaerari uko egitearen onspena.	
113	2016/11/08	Udaltzain lanpostu bat betetzeko bitarteko funtzionario bat izendatzea	



## DEBAko UDALA

		2016ko azaroaren 8tik aurrera	
114	2016/11/10	Eguneko Zentroko langile baten baja ordezkatzeko kontratazioa 2016ko azaroaren 10etik aurrera.	
115	2016/11/14	Eguneko zentruan eta jubilatuen etxean bi forjatu eraikitze kontratua esleitzea.	2016SCOU0010
116	2016/09/28	Comercial Leko-Ona, S.L.-k sustatutako xehetasun azterlanari hasierako onarpena ematea	2016URED0002
116B	2016/09/28	Proteisa 2002, S.L.-k sustatutako xehetasun azterlanari hasierako onarpena ematea	2016URED0003

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

### 6.- Eskariak eta galderak.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, Udala Udalbiltzako kide denez, adostu zela 2015 urtean Udalbiltzari kopuru jakin bat ordaintzea, ordaintzeke dagoela eta galdetu du ea ze asmo dagoen. Alkateak erantzun dio ez dakiela ezer gaiari buruz baina galdetuko duela.

Hondakinak jasotzeko sistema berriaren ezarpenaren inguruan, Aimarrek zalantza dauka helburua betetzeko jarri diren baliabideak nahikoak ote diren. Herritarrei bidalitako gutuna esate baterako, teknikoegia iruditzen zaio eta ez daki zein punturaino komunikazio egoki baten eta sensibilizazioaren helburua betetzen den. Eskola, elkarteekin... kanpaina berezia egin beharko litzatekeela uste du.

Cristobal del Corte zinegotziak erantzun du, ezarpena eta komunikazioa Artelatz enpresaren bitartez egingo dela eta Mankomunitatearen ustetan horrekin nahikoa izan beharko litzatekeela, baina Udalean ikusiko balitz nahikoa ez dela Udalak bere kabuz egingo duela egin beharrekoa.

Maidar Zubikarai zinegotziak proposatu du ostalariekin bilera-saio bereziak egitea, izan ere, horien hondakin bolumena gainerako herritarrena baino handioagoa da.

Aimarrek proposatu du, zaborren mahaia biltzen jarraitzea eta Cristobalek erantzun dio, azken aldi honetan ez direla bilerak egin ez delako mugimendurik egon, baina hemendik aurrera egin beharko direla dana martxan jarri arte.

Aimar Lasa zinegotziak mahairatu du Toki Entitate Txikiaren auzian Gora Debako hiru kidek jarritako auzi-errekurtsoaren sententzia irten dela, eta galdetu du, hemendik aurrera zer gertatuko den.

Alkateak erantzun dio, ez daudela ados nola eratu zen Toki Entitate Txikia, baina ez dela jarrera aldaketarik egongo. Momentu honetan hitzarmena lantzen ari direla, baina adostasunik egon ezean daukaten gehingoaz baliatuko direla.

Cristobalek alkatearen hitzak berretsi egin ditu eta gaineratu du, elkarbizitza eta adostasunera heldu beharra dagoela.



## DEBAko UDALA

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du pertsonalaren inguruan, euskara arduraduna, udaltzaina, arte eskolako irakaslea eta eguneko zentroko langilearen inguruan.... Lanpostu horiek bete beharra dago eta galdetu du nola egingo den. Proposatuta du, Barne Errregimeneko eta Pertsonaleko batzordearen bilera egitea.

Ane Egidazu zinegotziak euskara arduradunaren lanpostua betetzeko emango diren urratsen berri eman du.

Alkateak arte eskolako langilearen berri eman du. Azaldu du, langilea eszedentzian egon ondoren bere lanpostura bueltatu dela.

Maiderek galdetu du Ondargain eta Zaharren egoitzako taberna-kafetegien ustiapenerako kontratuen inguruan eta alkateak azalpenak eman dizkio. Lehenengoak, kontratua amaitutzat emateko eskera egin du, eta bigarrenean, esleipena egiteko jardunbidea martxan da.

Aimar Lasa zinegotziak gogorarazi du Udalbatzarraren aurreko saioan aktak Web orrialdean eguneratzeko eskaera egin zuela.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko azaroaren 24an

**IDAZKARIA**

